



HONDARRIBIKO UDALA

## **HONDARRIBIKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA** **HONDARRIBIKO AIREPORTUARI BURUZ**

2016ko azaroaren 10ean Hondarribiko udaletxean egindako Bozeramaile Batzordean EAJ/PNV, ABOTSANITZ, EH BILDU, PSE-EE-PSOE eta PP udal talde politikook Hondarribiko Aireportuaren etorkizunaz hauxe adierazi nahi dugu aho batez:

1. Joan den uztaila ezkeroztik hainbat hedabidetan Hondarribiko Aireportuaren pista laburtzeaz eta ondoren luzatzeko aukeraz agertutako albisteez Hondarribian ezinegona sortu dute. Izan ere, salbuespen-aitorpenak bideratua zuen egoera berriro zalantzan jarri baitu balizko pista luzatzeak.
2. Aurrekoa kontuan hartuta eta Hondarribiko aireportuak euskal aireportu-sisteman duen axolaz jabetuta, zera eskatzen diogu Sustapen Ministerioari: euskal administrazioekin batera irtenbide tekniko egokiena aztertzen duenean, ez alde batera uzteko Hondarribiaren planeamendua eta garapena, ingurumenaren errespetua eta herritarren nahiz bidaiarien segurtasuna, eta azterketaren emaitza Europako erakundeen oniritzia behar badu eman beharreko pausoak eman ditzala.
3. Ez gara pista luzatze hipotetiko baten aldeko, horrelako erabaki batek bete-betean eragingo bailuke, besteak beste, Mendelu auzoaren garapenean, bertako bizilagunei dagokienez, baita jarduera ekonomioei dagokienez, eta erabat deuseztatuko bailituzke hiriko planeamenduan jasotako determinazioak. Gainera, guk dakigula horrek ekarriko lituzkeen ondorioei buruzko azterketa zehatzik egin ez denez, ezinbestekoa izango litzateke aldez aurretik jakitea pista luzatzearen benetako eragina zein den eta nork eragingo liokeen aurre eragin horri.
4. Hondarribiko Udala beti prest egongo da aireportuaren egoera jorratzen den bileretan eta foroetan parte hartzeko herritarren ongi-izatea eta hiriaren garapena helburu dituela, eta beste administrazioei eskatuko die Hondarribiaren ahotsa entzuteko jarrera. Era berean, eskerrak eman nahi dizkie Ortzibian bildu ohi diren euskal erakundeei orain arte izandako jokabidearengatik eta Sustapen Ministerioari eta AENArri azaroaren 3an Aireportuen Koordinazio-Komitearen bilerara gonbidatzeagatik.
5. Adierazpen instituzional honen berri Sustapen Ministerioari, AENArri, Ortzibiari eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei ematea erabaki dugu.

Hondarribian, 2016ko azaroaren 24an

EAJ/PNV

ABOTSANITZ

EHBILDU

PSE-EE

PP